

Pucciniren *La bohème*

Parmako Antzoki Regioaren Orkestra.

Zuzendaria: Miguel Angel Gomez Martinez.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin. Eszena Zuzendaria: Emilio Sagi.

Bakarlariak: Inva Mula (sopranoa), Stefano Secco (tenorea), Carmen Romeu (sopranoa), Simone Piazzola (baritonoa).

Lekua: Euskalduna Jauregia. Data: maiatzaren 18a.



Emozio unibertsalak

MUNDUA, gizartea, dena aldatzen da, baina badira hainbat sentimendu, emozio, sekula aldatzen ez direnak, eta, nahiz eta gaur egun esan genezakeen bizitza nahiko makinala daramagula, hunkitu egiten gaituzte.

Amodioa eta heriotza protagonistak dira Puccini-ren *La bohème* operan. Pariseko *Quartier Latin* auzoan kokatzen da ekintza, eta, hasieran alaitasunez eta kezkarik gabe (baita dirurik gabe ere) bizi den artista talde bat da protagonista. Baina bizitza alai hori tragedia bihurtzen da protagonista den Mimi tisiak jota hiltzen denean. Hau da, argumentu sinplea, baina negarra eragiten duten horietakoa. Pucciniren musika biribilak bilgarri zoragarria eman dio istorio honi. Sentimenduak asaldatu egiten dira partiturari esker. Laburbilduz, XIX. mendeko opera ederrenetako bat da, dudarik gabe.

Aldi honetan, produkzio sinple eta garbia ekarri du OLBEk denboraldi honi amaiera emateko. Ovidoko Opera Fundazioaren muntaketa honek, bere soiltasunez, erakarri eta harrapatu egiten du publikoa lehenengo momentutik. Eszenografia errealistak, azkenaldi honetan hain modan dauden keinu oniriko arrarorik gabea, sinesgarritasuna eman zion akzioari. Emilio Sagiren eszena zuzendaritza, oso eraginkorra, bestalde.

Baina goazen alde musikala aztertzeraz. Parmako Antzoki Regioaren Orkestra leuntasunez aritu zen uneoro, ahotsak azpimarratuz, delikadeziaz. Gure artean aski ezaguna den Miguel Angel Gomez Martinez zuzendariak (Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaria izan zena lehenengo garaian) frogatu zuen kalitatezko opera-zuzendaria dela, dudarik gabe. Eta ahotsak, ongi, orokorrean. Bikain bat merezi izan zuen Inva Mula sopranoak, Mimiren rolean, modu zoragarri aritu baitzen aria eta duetto guztietan. Ez zen hain inspiratua ibili, aldiz, Stefano Secco, Rodolfo jokatu. Carmen Romeu soprano valentziarrak Musetta perfektua egin zuen. Gaitasun bokalak ez ezik, interpretaziorako sena ere ederki luzitu zuen. Bere *Quando m'en vo* (Musetta-ren bals famatua) bizi eta indarrez beterik atera zen. Simone Piazzolak Marcelo komentzigarria egin zuen, bere ahots tinbratuari esker.

Bilboko Operako Abesbatza, fin, beti bezala, eta aipamen berezi bat Leioa Kantika Koraleko umeei, bikain aritu baitziren. ■

Montserrat Auzmendi
del Solar



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com